

## Kultura-agenda irratsaioa 1.mp3

Arratsalde on, entzule. Kultura-agenda saioan zaude, eta, beti bezala, astean izango ditugun ekitaldien berri emango dizugu.

Kontzertuekin hasiko gara. Abuztuaren hogeita bederatzian, Zetak taldeak joko du Zumarragan, gaueko hamaika eta erdietan. Hurrengo egunean, abuztuaren hogeita hamarrean, berriz, Izaro entzuteko aukera izango dugu Jataben, arratsaldeko sei eta erdietan. Abuztuaren hogeita hamaikan, Willis Drummond taldea Lizarran arituko da gaueko zortzietan, eta Huntza taldeak irailaren batean joko du Urruñan.